

ENBAT BURU

laite Vallejo

1RREPORTAJEA

1dako oporrak

3ERBETAN

:armelo Modamio,

26 urtez Merkatu

Plazako arduradun

KIROLA

1999/2000


denboraldiko

Haundiren aurkezpena

# BARRREN

1999ko irailaren 10a  
VII. urtea - 289. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A




Oporretatik bueltan  
kontu kontari

"rzirinin iii7p. bat pauso bakarrarekin hasten da" (Ekiaideko esaera)



## UDAL EUSKALTEGIAK

Zula. ETOKI IIIAMA EYSKAL kfiti



## 1111-2000 POSTURTEIZO ELISKARA POSTAROAK

Euskalduntze maila guztiak, Alfabetatze, EGA eta Hizkuntza Eskakizunak  
Iraupena: Iraila-ekaina.  
Erritmoak: Bi ordu egunean.  
Ordu eta erdi egunean

120 orduko ikastaroak

EGA ikastaroa (larunbatetan).

Irakurtzen eta idazten trebatzeko oinarrizko ikastaroa (astean 4 ordu).

Mintza praktika ikastaroa (astean 4 ordu).

Ikastaro bereziak ikastetxe, lantegi eta guraso taldeentzat

PREZIO BEREZIAK ikasie, langabetu, jubilatatu eta guraso taldeentzat

Bekatzeko sistemarekin ia dohainik ikasiko duzu euskara!

16 urtetik gorakoentzat.

### Matrikulaldia

Irailaren 1etik 24ra

### Bulego ordutegia

ELGOIBAR: 9:00-13:00 / 15:00-20:00



UDAL  
EUSKALTEGIAK

DEMEE tIDAL GUSKALTEQEN HANWHUNITATEA

ELGOIBAR Nafarroa Ervarantza, 2 | Tel: 94374 27 31 | E-posta: elgipuska@udal.gipuzkoan.e

Aretxabareta | Arasate | Azpeltia | Beasain | Bergara | Deba | Fibar | Elgoibar  
Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irup | Lasarte-Oria | Legazpi  
Mutriku | Pasaia | Tolosa | Umieta | Urretxu | Zarautz | Zumarraga

## ZEZEN-BIDE

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin



San Frantzisko, 43-1. - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR

Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik) - Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

# Ahaimenik edo dohalak



MAITE VALLEJO

**A**urtengo udak ere eman ditu bere ematekoak eta hemen gara berriz ere sasoi berri baten atarian. Bai, udak eskaintzen dizkigun argitasun, berotasun, bidaia eta arduragabeko atsedenaldi ederren ostean, udazkenak, eguneroko bizimodura itzultzea ekartzen digu, eguneroko ardurekin, zereginekin... Ate joka datorkigun garai berri hau aproposa izaten da askorentzat bizitzan aldaketak egiteko, proiektu berrietan pentsatzeko, uda aurretik utzitako gauzak berriz hartzeko. **Baina** beste askorentzat ez da garai ona izaten. Nik entzuten dudaren arabera behintzat, badirudi, eguzkiaren argiak behera egiten duen bezala, pertsona askok ere behe-  
ra egiten dutela eta loreak bezala ximeldu eta goibeldu egiten direla. Egoera horretan buruan erabiltzen dituzten pentsamenduak ez dira baikorrak izaten, beste era honetakoak baizik: ez daukat ahalmen edo dohain bat bera ere... Era honetako esaera mingarri bat baino gehiago entzutea tokatu zait ezagun askoren ahotik eta hauei bereziki luzatu nahi nieke garai honetarako mezu baikor bat.

Denok ditugu ahalmen eta dohain ugari gure nortasunean: gauza asko egiteko gaitasunak, grazia bereziak, baloreak... Batzuk naturalki ateratzen zaizkigu eguneroko bizitzan, baina beste asko ez ditugu oraindik eza-  
gutzen, lurperatuta ditugu. Eta dohainez eta graziaz betetako zenbat pertsona bizi dira goibeltasunetan, nahiezetan eta depresioetan sarturik? Pentsatu al duzu inoiz zenbat on egin dezakezun zure dohain horiek besteen zerbitzura jarriko bazenu?


Pertsona guztiak onartzen badituzu, maitasuna eskaintzen baduzu besteen zerbitzura jarriz, zoriona ematen saiatzen bazara hitz egiteko beharra duenari entzuten badiozu, sufritzen duenarekin errukitsua bazara, negarez dagoenari lagunduz edo barrez dagoenarekin ban'e egin... dohainez beteta zaude! Ez dago zu baino aberatsagorik! Ez dituzu lurpean gorde zure dohain horiek eta ondorioz, edozein aurrezki kutzak ematen duen interes handienak baino gozamen eta zoriontasun handiagoa izango duzu. Bai, horrela da, besteei on egin nahian ematen den guztia bikoiztuta itzultzen da gure bizitzara eta horrela jokatzeko duen edonork jaso dezakeen ondarea da hori.

Zure inguruneak zure beharra du, zuk asko erakuts diezaiokezu aldamenekoari. Erabil itzazu dituzun ahalmen guztiak, bai-loratu zeure burua (nahiz eta mugak izan, urrutira irits zaitezke), gogortu zure nortasuna, ez gutxietsi zure burua. Pausorik pauso, bidean zoazela, milaka aukera izango dituzu zure dohain horiek erabiltzeko eta beste pertsona askoren bizitzak errazteko eta alaitzeko. Eta horrek balioa, zentzua eta zoriontasuna ekarriko du zure bizitzara. Gogoratu bada, hitz gutxitan, on egitearen urrezko giltz hauek:

Izan beti errukitsua.  
Eman neurririk gabe eta ezeren truke.  
Onartu gogo onez pertsona guztiak.  
Maitatu beti doan (hori baita benetako maitasuna).

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaite bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## B Birrak eta Barreak





MAORILEK 105 PRZEG 11111111"  
IERABANIA HARTU 0111

7/mr /1E/ r

# o enuarls erabakig?



**KORO ALDAZ**

46 urte, eskaparartista

Gobernuak orain arte ez du ezer egin eta bazen ordua hontlako erabaki bat hartzeko. Aurrerapauso bat izan daiteke, baina hala ere oso gutxi iruditzen zait.



**JOSE RODRIGUEZ**

49 urte, ajustadorea

Presoek duten kondena, hemen edo kanpoan bete beharra dute. Baina Euskal Herri-  
ra hurbilduz bakea lortzen bada, Gobernuaren erabakia oso ona iruditzen zait.



**EUSEBIO ESNAOLA**

65 urte, sendagilea

Nire ustez Gobernuak ez ditu espetxe legeak ongi betetzen. Beraz, presoak hurbiltzeko hartu duen erabakia ez zait iruditzen nahikoa izan denik.



**MARI TERE ARRIOLA**

64 urte, etxeoandrea

Eman duten pausoa ondo dago. Noizbait hasi behar zen Gobernuaren presoen kontuarekin zerbait egiten. Familientzat ere presoak geratuago izatea hobe da.



**PELLO JUARISTI**

41 urte, irakaslea

Presioengatik hartu du erabakia Gobernuak. Guztira 600 preso daude eta Euskal Herriko kartzeletara 26 baino ez dituzte ekarriko. zerbait egin dute, baina gutxi da oraindik.



**FIDELA LEO-CHAVES**

52 urte, etxeoandrea

Euskal Herrian benetako bakea lortzeko balio badu, oso ondo iruditzen zait. Gobernuak erabaki hori hartu badu, beraiek jakingo dute ondo egin duten ala ez.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABEI



94b44 *~oodeute, 0414416 lettetelept,*

*Zatoz informazio eske!*

**ARRAÑAGA**

|| OESK 01 A

Tel: 943 74 10 11

*Miopia*

*Excimer laser*

*Lasik*

***Jose Ignacio Recalde Yurrita***

*Mediku Oftalmologoa*

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1• EIBAR Te1.943 20 18 44

# ...zure independentzia.



Asteazkenetan **UNI**  
Unibertsitatea, informatika...

Ostegunetan **ama**  
Gazteentzako gehigarria...


Ostiraletan **Mira**  
Mendi eta abentura zaleentzat...

Larunbatetan **begia**  
Literatura, artea...

Igandeetan **Ke**  
Erreportaiak eta elkarrizketak...

Haurrentzako jolasak **Xingela**  
denborap...k...

## Qunkaria



## • Idea lehiaketa antolatu du Debegesa Elkartek

Debegesa Elkartek, Debabarreneko irudi turistikoa eta eslogana definitzeko idea lehiaketa antolatu du. Lehiaketaren helburua eskualdearen irudi adierazgarria lortzea eta Debabarrena turistikoki bultzatzea da. 18 urtetik gorako Euskal Autonomi Erkidegoko edozein biztanlek har dezake parte. Bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du irailaren 30a baino lehen helbide honetan: *Debegesa*, Ibarbea Ibilbidea zlg, 20600 Eibar (Gipuzkoa). Irabazleak 200.000 pezetako saria jasoko du. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu telefono honetara: 94 382 01 10.

## • Hiru enpresak garbituko dituzte Udalaren lokalak

Elgoibarko Udaleko Gobernu Batzordeak sinatutako akordio baten arabera, hiru enpresa arduratuko dira Iokal municipalak garbitzeaz. *Galant* enpresak, jubilatutako ardean Udaleko langilea izan zen Idatina Dominguezek egiten zituen garbiketara lanak egingo ditu. Bigarren enpresak, *Kalainua 2000k*, Udaletxeko informazio bulegoa eta Merkatu plazako komunak garbituko ditu. Gainera, Madalako eta Leku Ederreko parkeak zaintzeaz arduratuko da. Bestalde, *Denetik* enpresari kontratua berriztu diote Garantia Sozialeko moduloetako klaseak ematen diren lokalak garbitzeko. Hiru enpresekin urtebeteko kontratua sinatu du Udalak.

## • Gurasoentzako euskarazko klaseak

Hizkuntza bat transmititzean gurasoek duten garrantziaz obartuta, Udalak berriko euskaltegiekin batera gurasoentzako ikastaro bereziak antolatu ditu euskalduntzeko, euskara lantzeko eta hizkuntza sakontzeko. Lehendabizikoa urritik ekainera izango da eta 17.500 pezetako kostua izango du. Gainontzeko biak urritik irailera bitartean izango dira eta gurasoek 9.500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Ikastaro hauetaz gain, bost asteko bi modulo berezi antolatu dituzte: bata, haurrei ipuinak kontatzen ikasteko, eta bestea, haur jolasen eta kantuen ingurukoa, biak 5.000 pezetan. Izen-ematea euskaltegietan egin daiteke irailaren 23a baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero honako telefono hauetara dei dezakezue: 943 74 27 31 (Udal Euskaltegia) edo 943 74 13 32 (AEK Euskaltegia).

## Aikel Alberdi presca EZZO9 ZO es[p]Mzera darl@

Caceresko eta Huescako kartzeletan jarrafituko dute Inazio Iriondok eta Iñaki Jaiok



MIKEL ALBERDI

INAZIO IRIONDO

IÑAKI JAIKO

tik 700 eta 300 kilometro ingurura hain zuzen ere. Oraingoz, Barne Ministerioak argitaratu duen zenendan ez da bi preso hauen izenik agertzen, beraz, bertan januituko dute.


### Senideen iritzia

**B**ame Ministerioak joan den asteartean, hilak 7, 105 presoren espetze aldaketa iragarri zuen. Horien artean dago, Mikel Alberdi preso elgoibartarra. Gaur egun Villabonako (Asturias) kartzelan dago, Euskal Henifik 435 kilometrorra, baina aurki El Duesora (Santander) gerturatuko dute, etxetik 189 kilometrorra. Jokin Urain preso mendarotarra ere Lugotik Palentziara eramango dute. Elgoibarko beste bi preso politikoak, Inazio Iriondo eta Itiaki Jaiok Caceresko eta Huescako espetxetan daude hurrenez hurren, Euskal herri-

Hurbilketa hauek direla-eta, Elgoibarko presoen senideengana jo dugu, hartutako erabakiari buruz zer iritzi duten galdetzeko. Arrate Juaristik, Mikel Alberdiren emazteak esan digunez, "adar jotze bat izan da. Hurbilketaren aitzakian presoak espetxez aldatu dituzte. Gure nahia presoak Euskal Herrira gerturatzea da. Barne Ministerioak egin duena lotsagarria izan da". Iritzi beretsukoak dira beste bi presoen senideak ere. Beraien ustez, "denak Euskalerriratu beharko lituzkete".

## Irallaren bukaerara arte ez dira ofirnk maitithE

**U**dalak (Kirol Patronatuko zuzendariak esan digunez, "langileek teilitatuko uralita kendu zutenean, konturatu ginen txapa eusteko bigak erabat erdoilduta zeudela-eta alda-



tu egin behar zirela. Biga horiek aldatu harrak sortu du atzerapena. Ezusteak ez dira inoiz ere bakarrik etortzen, ordea, eta teilitua estaltzeko Alemaniatic eskatu zuten igeltsua hezeegia ekarri zuten eta bueltan bidali behar izan zen

Oraingoz hau izan da azken ezustea eta besterik ezean lehenbailehen igerilekua irekitzeko itxaropena daukagu".

Igerilekuan ezin diren berrikuntzen artean, teilitatuaren konponketaz gain ura filtratzeko sistema berria jartzea eta igerilekua margotzea daude.





AITOR

### San Lorentzoko jaietan zozketatutako txekorrak badu jabea

Aurtengo San Lorentzoko jaietan saldu ziren errifetatik zenbaki saritua duen txartela Julio Pe'rez-Cortesekek erosi zuen. Argazkian Julio bere semearekin eta Sallobente Elkarteko ordezkari batekin agertzen dira egokitu zaien limousin arrazako 600 kiloko txekorraren alboan. Mausitxa baserrian hazitako abelburuaren itxura ederra izan arren, Wrez-Cortesekek nahiago izan du txekorraren ordezkari eman dizkioten 200.000 pezeta hartzea. Bestalde, San Roke auzoko jaietan saldu ziren errifetatik 2.626 zenbakia izan da saritua, bigarrena, berriz, 0246 zenbakiari egokitu zaio. Erretserbako zenbakiak, 1.678 eta 2.664 dira hurrenez hurren. Antolatzaileek adierazi digutenez, zenbakiaren jabeak lehenbailehen beraiekin kontaktuan jartzea komeni da.

### Baltzola anaiek Euskadiko Trikiti Txapelketa irabazi dute

Oier eta Arkaitz Baltzola elgoibartarrak txapelkunak izan ziren abuztuaren 13an Zeanurin jokatu zen Euskadiko Trikiti Txapelketako finalean. 22 urtetik beherako 21 bikotek hartu zuten parte eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako trikitilarietara maila ona erakutsi zuten. Artea eta Igorre herrietan egindako kanporaketetik 6 onenak sailkatu ziren Zeanuriko finalerako, eta azkenean Baltzola anaiek irabazi zuten. Iaz txapelketa honetan bertan bigarren sailkatu ziren, eta honetaz gain, beste txapelketa batzuk irabazi dituzte. Hala ere, honek ilusio berezia egin diela adierazi digute. Eskuratutako sariek baino poz handiagoa egin omen die Euskadiko txapelkun izateak. Zorionak bada, eta segi horrela aurrerantzean ere.



L  
i  
K  
i  
d  
a  
z  
i  
o  
a



## MUXI kirolak

## AZKEN bi hilabeteak

Txandalak  
**PREZIO ERDIAN**

Futboleko,  
eskubaloiko  
eta futbitoko zapatilak  
**PREZIO  
EZINHOBEAN**

Kamisetak  
**3.000 pta.tik  
aurrera**

Denboraldiko  
zapatilak  
**%40ko  
BEHERAPENA**

Sudaderak  
**2.000 pta.tik  
aurrera**

Forro polarrak  
**4.500 pta.tik  
aurrera**


Txandal praktikak  
**3.000 pta.**

### %40ko eta %50eko BEHERAPENAK



## MUXI kirolak






UDALAREN izenean,  
eskerrak eigoibartar guztioi,  
haur, gazte zein nagusi,  
denon artean lortu baitugu  
San Bartolome jaiak  
giro eta umore ezin hobean pasatzea.



## SAN BARTOLOME JAIK 99

**Baserritarren Egunaren errepassoa**

Irailen sartuak gara, eta San Bartolome jaiak dagoeneko atzean utzi ditugu, baita Baserritarren Eguna ere. Egun horretan giro polita egoten da Elgoibarren, eta eguraldia lagun izan dugunez, aurten ere jende ugari bildu zen herriko kaleetan. Goizean goiz hasi ziren Elgoibarko eta inguruetakako baserritarrak hurreratzen. Plaza Txikian Gipuzkoako Limousin Ganadu Lehiaketara aurkeztutako ganadu dotoreak ikusi ostean, 11:00ak alderako ajende ugari bildu zen Plaza Handian sagardoa dastatzeko. Sabela txorizoz bete eta eztarria sagardoz bustita, trikiti doinuak entzun ahal izan zituzten Trikiti Eskolako gazteen eskutik. Arratsaldean, I. Harrijasotze Txapelketak ikusmin handia sortu zuen Plaza Handian. Eguna martxa onean joan zen eta berriz horrelako egun bat noiz iritsiko zain egotea besterik ez zaigu geratzen. Datorren urteko abuztua heltzeko denbora asko falta da oraindik, baina esperoan egon gabe, abenduan, Gabonzahar ferian zita polita izango du nahi duen guztiak baserri giroaz gozatzeko.

San Bartolome jaietako Baserritarren Egunean hiru lehiaketa izan ziren: Gipuzkoako Limousin Ganadu Lehiaketa, Sagardo Lehiaketa eta I. Harrijasotze Txapelketa. Hona hemen atal bakoitzeko irabazleen zerrendak:

**GIPUZKOAKO LIMOUSIN LEHIAKETA**

KATEGORIA..... IRABAZLEA

12 hilabetez azpiko behiak .....	Lopetegi Elkarte, Tolosa
12 eta 18 hilabete bitarteko behiak .....	Zelai Haundi baserria, Usurbil
18 eta 24 hilabete bitarteko behiak.....	Donardegi baserria, Urretxu
24 eta 36 hilabete bitarteko behiak .....	Zelai Haundi baserria, Usurbil
36 eta 48 hilabete bitarteko behiak .....	Zelai Haundi baserria, Usurbil
48 eta 60 hilabete bitarteko behiak .....	Lopetegi Elkarte, Tolosa
60 hilabetetik gorako behiak .....	Lopetegi Elkarte, Tolosa
24 hilabetez azpiko txekorrak .....	Lopetegi Elkarte, Tolosa

\*ABEREKIN SARIA

(24 eta 36 hilabete arteko behiak) ..... Zelai Haundi baserria, Usurbil

\*GIPUZKOAKO BEHI TXAPELDUNA

(60 hilabetetik gorakoa) ..... Lopetegi Elkarte, Tolosa

**XVI. SAGARDO LEHIAKETA**



1.- REZOLA sagardotegia (Astigarraga) .....	138 puntu
2.- SARASOLA sagardotegia (Astigarraga) .....	137 puntu
3.-LIZEAGA sagardotegia (Astigarraga) .....	136 puntu

**I. SAN BARTOLOME HARRIJASOTZE TXAPELKETA**

1.- JABIER ARRIOLA "Egi" .....	84 altxaldi
2.- IZETA III .....	80 altxaldi
3.- ZELAILUZE .....	71 altxaldi



**B**aseritarren Egunean gertatutakoa era egokian azaltzeko modurik onena argazki bidez egitea da. Egun horretako egitaraua antzekoa izaten da urtero, baina aldaketarik ez badago ekintzak jendearen gustukoak direlako izango da. Sagardo lehiaketa eta dastaketa, trikitalariak, Plaza Txikian ikusgai izan ziren ganaduak eta baserriko makinaria, eta, I. San Bartolome Harrijasotze Txapelketako irudiak daukazue ondoko orriotan. Ziur Baserri arren egunean Elgoibarrera hurbildu zirenek horietako ekitaldiren batean parte hartu zutela, eta seguru asko gozatu eta ondo pasatu zutela gainera. Datorren urteko San Bartolomeetako feria iritsi bitartean, irudi hauek islatzen dutenarekin konformatu beharko dugu.









## Jabier Arriola

### "Norbere burutik hasita, denak dira lehiakide gogorrak"

Jabier Arriola "Egi" harrijasotzaileak 26 urte ditu. 16 urterekin kirola gustuko zuelako hasi zen harriarekin Mintxetako Pedro Mari Egaña entrenatzaile zuela. Urte askoan harrijasotzen ibili ostean, orain dela 2 urte lesioa izan zuen. Bi urte geldi egon eta gero, aurten agertu da berriz plazara. Mallabiko txapelketa batean hirugarren egin zuen eta ondoren, Elgoibarren, "San Bartolome I. Harrijasotze Txapelketa"n irabazlea izan da Gu berarekin izan gara harnjasotzeari eta bere esperientziari buruz hizketan.



**- San Bartolome jaietako I. Harrijasotze Txapelketan lehenengo egin zenuen. Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Horrelako txapelketa bat antolatzea oso zaila da, beraz, antolatzaileek lan oso ona egin dutela iruditu zait. Gainera, herrian bertan irabaztea oso pozgarria izan da niretzat. Bada esaera bat, norbere herrian profeta inor ez dela dioena, baina ni gustura aritu nintzen eta ilusio handia egin zidan lehenengo izateak.

**- Harriak zer moduzkoak ziren?**

Oso onak. Nonnanean guk erabiltzen ditugun harriak ez dira horren zailak izaten; prestatuta daudenez, heldulekuak daukate. Erabiltzen ditudan harrietatik zailena kubikoa da; gustukoen duclana, berriz, zilindroa. Orain dela 6 urte inguru zilindroarekin hautsi nuen marka.

**- Lehen oinutsik aritzen zinen harrijasotzen.**

Lehen bai, baina orain ez, ohitura kontua da. Hasi berritan kezka eta mania gehiago izaten dira eta horrelako gauzei gehiago begiratzen zaie, baina aspaldian zapatilekin ibiltzen naiz.

**- Zer moduz joan da aurtengo denboraldia?**

Bi urte geldi egon ondoren kostatu egin zait erritmoa hartzea. Bi txapelketa egin ditut, batean hirugarrena izan naiz eta lehenengoa bestean, beraz, nahiko kon-

forme nago. Oraindik asko daukat mehoratzeko, eta lendeak nigan jarritako esperantza galdu badu ere, datorren urterako hobetuko dudala uste dut. Orain lasai hartuko dut eta gero gogor entrenatzen hasioko naiz, hurrengo denboraldian postu onak lortzeko. Horretarako ingurukoek asko lagundu didate. Aurten ez dut marka berezirik egin sasoi puntu ona urruti daukadalako, baina mehoratzen hasiz gero pentsatuko dut horretan ere.

**- Zein entrenamendu mota egiten duzu?**

Entrenamendu egokia egiteko gimnasioan prestatu behar da, ondoren fondoa, bizildetan edo korrika, eta hirugarrenen, harriarekin berarekin aritu. Prestakuntza ideala hori litzateke, baina askotan denbora faltagatik zerbait lagatzen dut egin gabe.

**- Zein da zuretzat lehiakiderik gogorrena?**

Norbere burutik hasita, denak dira lehiakide gogorrak. Baina norbait esatekotan, Mallabiko Zelai aipatuko nuke, urte askoan da txapelduna eta bere kontra ezin da ezer askorik egin. Bestalde, lehiakide gogorra Zarauzko Izeta ere bada.

**- Harrijasotzen hasi nahi duen bati zer esango zenuke?**

Gustuko baldin badu, hasteko, dudarik gabe. Kanpotik begiratuta kirol gogorra dirudi, eta jende askok harrijasotzen mina har daitekeela esan arren, edozein kirol bezalakoa da. Nire ustez kirol guztiak dira gogorrak.

**- Herri kirolak baserritarrenak soilik al dira?**

Garai batean, orain dela urte asko, baserritarren kirolak ziren. Baina gaur egun herri kirolak egiten dituen jende asko dago. Gainera, herri kirolak egiten dituzten kaletarrak baserritarrek baino gehiago direla esatera auzartuko nintzateke. Piskanaka, baserritarrek ez direnak ere herri kiroltan sartzen ari dira, eta hori ona da. Ikusleei dagokienez, denetik dago, Elgoibarren plaza jendez gainezka egoteak garbi utzi zuen hori.



*Amaitu dira udako opor-  
rrak, eta iraila lanera itzul-  
tzeke garaia da. Aurtengo  
iraila, ordea, berezia izan-  
go da Carnzelo Modamio-  
rentzat, 65 urteko merkatu  
plazako arduradunak erre-  
tiroa hartu baitu. Merkatu  
plazan erosketak egiteko  
ohitura duzuen elgoibarta-  
rrok eta dendariok nabari-  
tuko duzue Carmeloren  
falta. Baserritarrek "Plaze-  
ro" deitzen diote elgoibar-  
tar ezagun honi, eta 17 ur-  
te zituetzetik lanean jardun  
ostean, merezitako erreti-  
roa hartu du.*

# CARMELO MODAMIO

## "Eskerrak eman nahi dizkiet herrita- rrei jaso dudan tratu onarengatik"

— **Noiztik zara Merkatu  
plazako arduraduna?**

Merkatu plaza 1972. urtean inauguratu zuten eta urtebete beranduago sartu nintzen lanean. Lanpostua oposizioak irabazita lortu nuen. Orduan ez zuten euskara jakiterik eskatzen lanpostua lortzeko, beste garai batzuk ziren-eta. Baina kurioso da nola ordurako euskara jakitea lagungarria zen. Azterketetan emaitza parekatuak ateraz gero, euskara zekienak egiten zuen aurrera. Nik urte dexente neramatzan Elgoibarren eta euskara ulertzeko gai nintzen. Hitz solte batzuk esaten ere banekien eta lagungarria izan zitzaidan.

— **Lehenago beste lanpostu batzuetan ere aritu zara, ezta?**

Bai, 17 urte nituenetik nabil lanean. Sorian jaioa naiz, baina 1952an etorri nin-

zen Elgoibarrera. Lehenik, fundizioan eta tailerretan aritu nintzen lanean. Gero, 16 urtez Odeoi zinemako atezaina izan nintzen, eta azkenik, Merkatu plazako arduraduna, jubilatua naizen arte.

— **Zein izan da zure lana zehazki?**

- Saltzaileei saltokiak edo postuak kobratzea eta araudiak betearaztea izan da nire ardur nagusia. Ostegunetako azoka eta hileko azken larunbatean egiten den feria ere nire ardurapean egon dira. Zinegotziei informeak ere pasatzen nizkien Gauza hauen guztien gaintetik jendea gustora sentitzea, eta inork behar izanez gero, laguntzea izan da nire lana.

— **Penaz laga al duzu lana?**

- Bai, negar piska bat ere egingo dut. Lan bat baino gehiago izan da, denbora gehiago egiten nuen plazan etxean baino. Azkeneko

kariño handia hartu diot jendeari. Egunero herritar asko pasatzen da hemendik eta denek ezagutzen naute. Saltzaileekin ere oso ongi konpondu naiz eta lagun asko egin ditut. Norbait hil denean, senideak balira bezala sentitu dut. Aukera hau aprobetxatu nahi dut Elgoibarko herriari eta Udalari eskerrak emateko 26 urte otan jaso dudan tratu onarengatik. Sorian jaio nintzen arren, elgoibartar eta euskaldun sentitzen naiz eta egindako lanarekin gustura nagoenez, oso harro lagatzen dut lanpostu hau.

— **Asko aldatu al da Merkatu plaza 25 urteotan?**

Bai. Saltokien itxura aldatu ez den arren, lehen beste salta eta giro bat zegoen. Baserritarrak astoz etortzen ziren eta ia ez zegoen tokirik saltoki gehiago jartzeko. Mugimendu eta lan gehiago zegoen, baina politagoa zen. Baserritarrak inguruko herrietatik etortzen ziren: Markinatik, Berriztik, Elorriotik, Azkoititik, Debatik... Orain, asko bajatu da.

— **Nola ikusten duzu merkatuaren etorkizuna?**

- Ohiturak asko aldatu dira eta jende gutxiagok egiten ditu erosketak merkatuan. Bertako produktu freskoek lehen estimazio handiagoa zeukatela uste dut. Gaur egungo etxeoandreen ohiturak ere ezberdinak dira. Askok etxetik kanpo lan egiten dutenez, aste osoko erosketak egun bakar batean eta supermerkatu handietan egiten dituzte. Saltzaileen lanak ere ez du jarraipenik. Lehen gurasoek seme-alabei pasatzen zieten saltokiko ardurua, baina hori ere galdu egin da.

### RESTEEK ESANA

"Pertsona jatorra da. Bere lanean fin saiatzen dena. Igarriko dugu falta dela." SAGRARIO DELGADO, Dominguez arrandegikoa.



## UZTAILEAN

### ••• JAIOTAKOAK •••

- Mikel Gareia-Abad Gonzalez (Uztailak 1)
- Oier Agirrezabala Peñagarikano (Uztailak 7)
- Aitor Mancebo Fernandez (Uztailak 8)
- Iñigo Mugerza Osoro (Uztailak 10)
- Leire Morales Mugerza (Uztadak 20)
- Jon Martinez Perez (Uztailak 28)
- Irati Intxausti San Martin (Uztailak 31)

### • - - EZKONDUTAKOAK •••

- Pedro-Jose Pe'rez Dominguez eta Ana Isabel Castro Sousa (Uztailak 3)
- Jesus Gómez Antolin eta Idoia Martikorena Moro (Uztailak 17)
- Jose Antonio Garcia Avila eta Ma Luisa Barros Dasilva (Uztailak 17)

### • - - - HILDAKOAK ••••

- Domingo Altuna Arizmendi, 90 urte (Uztailak 19)

## ABUZTUAN

### ••• JAIOTAKOAK •••

- 13eilat Villarchao Garcia-Sanpedro (Abuztuak 18)
- Eneko Rubio Ramirez (Abuztuak 26)
- Gorka Melgosa Ezenarro (Abuztuak 26)
- Lorea Gfinezalez Marquez (Abuztuak 27)


# G O G O R A T U Z

## Francisco Egaña Eizmendi oullozel



- 1921eko marnwaren 29an jaio zen Donostian. 7 anai-arreba izan ziren, bera laugarrena. 3 urte zituela etorri zen familia Elgoibarrera eta Txankia'neko jauregian finkatu ziren. Haurtzaroko ikasketak Madalako ospitaleko eskolan egin zituen.
- Geroago, familiarekin batera, Aitz-Gorri iturri famatuaren ondoko etxe ikusgarrira aldatu zuten bizilekua. Sagastia, oilotegia eta baratza eden-ak zituzten etxe ondoan. Bere aita abokatua izan zen eta Conrado jaunaren etxea esanda ezaguna zen.
- Pilarreko ikastetxe berria eraiki zutenean, gazteta-ko ikasketak hasi zituen bertan. Garai hartan, lagunekin batera futboleko, esku pilotan, Goiko Errotako presa, igerian edo erromerietara joanez dibertitzen zen.
- Oso gaztea zela, 1936ko gerratera joan zen bolondres moduan, eta hainbat zaurirekin itzuli zen. Gero, Burgosen egin zuen soldaduzka. San Zarsizio eta San Luis Gonzaga kongregazioetako kidea izan zen, eta Zubi-Ertzalaguntaldekoa,
- C.D. Elgoibar taldeko lehendakaria zela, Liga Txapelketa eta Gipuzkoako Kopa irabazi zituen Haundik urte berean. Aurretik, Jesus, bere anaia gazteagoa eta Francisco bera ere futboleko atezainak izan ziren. Ausartak eta ospetsuak izan ziren biak.
- Pako Conrado bezala ezagutzen zuten herrian. Itxura galanteko eta planta oneko gizona zen. Jatorra eta adarjolea zen, adeitsua eta oso estimatua.
- Pepita Irusta pertxentarekin ezkondu zen eta 8 seme-alaba izan zituzten. Lehenengo, Udaletxean idazkari lanetan aritu zen. Ondoren, Altzolako Bainu etxe-ko eta Forjas de Elgoibar lantegiko administraria izan zen urte luzeetan. Zoritxarrez, gazterik alargundu zen.
- Oso kirolaria zen, arrantzan egitea, mendian ibiltzea eta boxeoa gustulko zituen. Zinea eta irakurtzea ere atsegin zituen. Pako sinesmen handiko eta benetako elgoibartar osoa izan zen.
- Omindik sasoi oneko zela, 1980ko maiatzaren 26an hil zen 59 urterekin.

Juanito Gorostiza



# EIXEBERMA

## Hileta zerbitzu

OSO A eta 24 ORDUKOA

**KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK**

**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI**

**zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01






rrateko Amaren eguna pasa berri den honetan, 1964ko otsailaren 23an, Amabirjinaren irudia Elgoibarrera ekarri zuteneko erretratua laga digu Elena Alberdik. Argazkia Elgoibarko plazan atera zuten Garai hartan elizbarrutiko misioak egon ziren herrian eta frantziskotarrak etorri ziren Elgoibarrera. Hori zela-eta, Arrateko amaren irudia ekarri zuten Parrokiara, eta argazkian, berriz bueltan Arratera eraman zuten ueña agertzen da. Irudia Elenaren aitaren kamioian eraman zuten. Orduan, ekitaldi berezietan askotan ateratzen zuten "El Forrillo" delako kamioia,

besteak beste, Elgoibarko futbol ekipoa txapeldun izaten zenean. Izan ere, taldeko jokalariek Udaletxera eramaten zituzten bertan. Euria ari zuenez, argazkia atera zuten egunean, Amabirjina plastikoz estalita eraman zuten Arratera eta jendea ere aterkiak eskutan hartuta agertzen da eliz atarian. Argazkian, Elenaren aitarekin batera, andariak agertzen dira. Ezkerretik hasita honako hauek dira erretratukoak: Manuel Alberdi "Olasope"(t), Anton Barrenetxea "Borragen", Karmelo Loiola, Anastasio Zearsolo eta Anton Mari Zabaleta.

**ESKERTZA**




1999ko uztailaren 20an, 73 urte zituela hil zen **TERESA LARREINA IRIARTE**ren sendiak, **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta eakizunetara agertu izana.



**ESKERTZA**



1999ko abuztuaren 28an, 60 urte zituela hil zen **Ma PAZ ARRIOLA ZABALA**ren sendiak, **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



• Deba bailaran zentratuko du aurten bere lana Kirola Euskaraz programak

Kirola Euskaraz programak orain arte Euskal Autonomni Erkidegora begira lan egin badu ere, aurten Deba badarara mugatuka du bere jarduna. Programaren arduradunek Eibarren ernandako prentsaurrekoan esan zuten, "ikasturte honetako programa, eskola kiroltako monitore eta klubetako entrenatzaileei zuzenduta dago. Ikastaro omkorrez gain, pilotako, eskubaloiko eta futboleko saioak egingo dituzte". Helburuak euskaraz jardutea eta kalitatea hobetzea izango direla gaineratu zuten. Programa ezagutzera emateko, Debarroko biztanleei zuzendutako publizitate kanpaina jarri dute martxan. Kanpainaren leloa, 'Euskaraz denok irbazten dugu'. Kirola Euskaraz programa 1993. urtean jarri zuten martxan Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuek.

• Haurrentzako igeriketa ikastaroak

Udal Kirol Patronatuak haurrei zuzenduriko igeriketa ikastaroa antolatu du, izan ere, 3 urtetik aurrerako neska-mutilentzat izango da. Klaseak Olaizaga kiroldegian emango dira eta 14 saiotan egongo da banatuta ikastaroa. Izena emateko azken eguna irailaren 17an izango da. Interesa dutenek Olaizaga kiroldegian enaart clezakezte izena 943 74 44 15 zertbakira deituta.

Eskualdeko I Areto Futbol Txapelketak

hasiko da

Izena emateko azken eguna urriaren 3a izango da

Elgoibarko, Eibar ko eta Ermuko Udal Kirol Patronatuek elkarlanean, Bailarako I. Areto Futbol Txapelketa antolatu dute. Bailarako Futbol-7 eta Tenis txapelketek izandako arrakastak bultzatu ditu antolatzailerak herrien arteko txapelketa hau antolatzera. Bailarako I. Areto Futbol Txapelketa urrian hasi eta ekainean bukatuko da. Izena ematea nahi duten taldeek urriaren 3a baino lehen jo beharko dute Olaizaga kiraldegira Elgoibarren, edo bestela Eibarko eta Ermuko kiroldegietara. Gainera, urriaren 9an Eibarko kiroldegian arratsaldeko 19:00etan izango den bilerara azaltzea derrigorrezkoa izango da izena ematen duten talde guztientzat. Taldeek aipatutako 3 kiroldegietan jokatzeko aukera izango dute, baina lehenengo fasean zurrenik ez dute partiduak jokatzeko beraien herrietatik atara beharrik izango. Araudiari dagokionez, talde bakoitzak gutxienez 8 kide izango di-



Lehen aldiz Ermuko, Eibarko eta Elgoibarko taldeek areto futbol txapelketa berean hartuko dute parte, eskualdeko txapelduna erabakitzeko.

tu; gehien jota 12, ennakume zein gizon, guztiak 15 urtetik gorakoak. Lehenengo fasea amaitu arte, nahi beste aldaketa egin daitezke jokalarien zerrendan. Disziplina Batzorde bat ere eratu dute, txapelketako partehartzaileak edo antolatzaileak kaltetuz gero zigorrak ezartzeko. Txapelketa liga eran jokatu da eta 3 fase izango ditu. Lehenengo fasean taldeak erakutsi duten mailaren arabera banatuko dira. Bigarren fasean, berriz, aurrera jarraituko duten taldeak erabakiko dira.

Egoitz Morak brontzezko donvina irabazi du Hungriako IAtony Txapelketan

Fgoitz Mora judoka elgoibartarra, inguruan ezezik atzerrian ere, arerio gutxi dituela erakutsi du uda honetan. Budapestean jokatu zen 'Aton' Judo Txapelketan lortu zuen brontzezko domina da esaten dugunaren lekuko. Espainiako junior selekzioarekin joan zen Egoitz Budapest aldera, eta 90 kiloz azpiko kategorian Europako judokarik onenekin neurtu zuten indarrak.



Espainiako junior selekzioarekin izan zen Egoitz Mora Budapestean.

Lehen borrokaldian ez zuen zorte gehiegirik izan, hungariar baten aurka borrokatzea tokatu baizitzaion. Hunga-

riarra etxean ari zenez, oso motibatuta barrokatu zuen eta Egoitz irabazi egin zion. Hala ere, txapelketan jarraitzeko aukera izan zuen elgoibartarrak, eta Esloveniako eta Portugalgo txapeldunei irabazi ostean, Yugoslabiako txapeldunaren aurka irabazi eta brontzea lortu zuen. Momentu honetan, Egoitz bere mailako lehenengo postuan dago Estatuko saillapenean, eta aukera handiak ditu Europako Txapelketan parte hartzeko.





# HAUNDI

## 1999•2000CI

**A**buztuko azken asteburuan jokatu zuen Haundik ligako estreinako partidua. Txomin Arkotxa ondarrutar entrenatzailearen agindupean, 2 eta 0 galdu zuten elgoibartarrek Zalla taldearen aurka. Bigarren partidua aurreko larunbatean, hilak 4, jokatu zuten Mintxetan, zaletuen aurrean oraingoan, eta 1 eta 0 irabazi zuten talde elgoibartarrak. 2B mailan zorte gehiegirik gabeko urtea egin ondoren, 3. maila ez dute hanka onez estreinatu Haundiko jokalariek, baina kontuan izan behar da lehengo urtetik hona taldea guztiz

berritu dela. 18 jokalaria daude plantilan eta horietatik 5 bakarrik aritu ziren pasa den urtean. Gai-nontzekoak, taldeak egin dituen fitxajeak edo beheragoko mailetatik igo diren jokalaria dira, Iker Polo eta Aitor Zubiaurre elgoibartarrak esaterako. Aipagarria da Unai Zulaikaren kasua, futbola utzi ondoren berriz itzuli baita zelaietara. Bestalde, zuzendaritzatik adierazi digutenez, "Asier Ruiz, Touringeko jokalaria, fitxatzekotan gabil-tza, baina gauzak ez daude guztiz argi oraindik eta itxaron egin beharko dugu fitxajea egin arte".



**Txomin Arkotxa**  
entrenatzailea  
(Ondarroa)



**Marcos Amado**  
prest. fisikoa  
(Mutriku)



**Josu Bastida**  
atezaina  
(Donostia)



**Eduardo Fernandez**  
atezaina  
(Azkoitia)



**Ruben Cobos**  
atzelaria  
(Eibar)



**Unai Zulaika**  
atzelaria  
(Elgoibar)



**Aitor Zubiaurre**  
atzelaria  
(Elgoibar)



**Iker Leonardo**  
atzelaria  
(Elgoibar)



**Aitor Olabarria**  
atzelaria  
(Markina)



**Imanol Alberdi**  
erdilaria  
(Azkoitia)



**Iban Castro**  
atzelaria  
(Irun)



**Miguel Diaz**  
erdilaria  
(Azkoitia)



**Aitor Aranbarri**  
erdilaria  
(Irun)



**Aitor Castillo**  
erdilaria  
(Azkoitia)



**Gorka Alkorta**  
erdilaria  
(Eibar)



**Lorenzo Gallano**  
erdilaria  
(Elgoibar)



**Iker Polo**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Eugenio Caro**  
aurrelaria  
(Elgoibar)



**Iffigo Baque**  
aurrelaria  
(Eibar)



**Unai Bravo**  
aurrelaria  
(Deba)







EUSKO JAULARITZA

HrUI,11711

IF7J1,1

Jardiffeta, 3 bis  
TEL. 943 20 06 48 EIBAR

# MATRIKULA OFIZIALA 1999-2000

## MATRIKULA SOBREAK JASOTZEKO eta PLAZA HARTZEKO EGUNAK

### 1. TXANDA

98-99 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egiteagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

**Irailak 16, goizez:** 1. mailatik 3.era, ingelesa eta euskara.

**Irailak 16, arratsalde:** 1. mailatik 5.era, frantsesa.

**Irailak 21, goizez:** 4. mailatik 5.era, ingelesa eta euskara.

### 2. TXANDA

Ofizialtasuna galdu duten ikasleak eta ofizialak izatera pasa diren ikasle libreak.

**Irailak 17, goizez:** 1. mailatik 3.era, ingelesa eta euskara.

**Irailak 17, arratsalde:** 1. mailatik 5.era, frantsesa.

**Irailak 21, arratsalde:** 4. mailatik 5.era, ingelesa eta euskara.

### 3. TXANDA

Ikasle berriak H.E.O.etan inoiz matrikulatu ez direnak eta mallakatze-azterketak egin dituzten ikasleak.

**Irailak 22, goizez:** 1. mailatik 3.era, ingelesa, frantsesa eta euskara  
(18 urtetik gorakoak).

**Irailak 22, arratsalde:** 1. mailatik 3.era, ingelesa, frantsesa eta euskara  
(16 urtetik gorakoak).

**Irailak 23, goizez:** 1. mailatik 3.era, ingelesa, frantsesa eta euskara  
(14 eta 16 urte bitartekoak).

### OHARRAK:

- ❖ **Beharrezkoa da NAN edo eskatu denaren ziurtagiria aurkeztea matrikula egiteko.**  
Ikasle ofizialek eta libreak H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.
- ❖ Matrikula, sobrean jartzen duen egunean eta orduan egingo da.
- ❖ Maila batean matrikula egiteko, aurreko maila gainditua izan behar da.
- 98-99 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila ezberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duelarik.

**Bulego ordutegia: 9:30 - 13:00 eta 15:00-17:30 Ostiraletan: 9:30-13:00**  
**Plazak ematerakoan kontuan hartuko da izena emateko ordena.**

# INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA

Anburategia:

- Larrialdiak . . . 943 461111
- Txanda hartzeko . 943 743354
- Plannirig-a ..... 943 742950
- Alkoholiko Anonimoak . 943740385
- D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
- Cruze Gorria . . 943 743864
- Mendaroko Ospitalea.. 943 032800
- Odol Emaileak . . 943 743936

## GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak .. 943 740442
- PESA (Eibar) . 902 10 12 10
- Taxi geltokia. 943 740898

## UDALA

- Euskara Zerbitzua... 943 744366
- Udal Kirol Patronatua.. 943 744415
- Kultura Zerbitzua .. 943 742158
- Mendaroko Udala... 943 756100
- Ongizate zerbitzua... 943741008
- Udaletxea ..... 943 741050
- Udaltzaingoa..... 943 741394

## BESTELAKOAK

- Elgoibarko Izarra ... 943 741626
- Kiroldegia..... 943 744415
- Kontsumo Bulegoa ... 943 743088
- Liburutegia ..... 943 743525
- Musika Eskola .. 943 742145
- Mintxeta ..... 943 744315
- Parrokia ..... 943 740842
- Postetxea ..... 943 741547
- Gaztetxea ..... 943 743572

## ADINEKOEN ETXEAK

- San Lazaro Egoitza.. 943 740296
- Zaharren Biltokia 943 740526

## IKASTETXEAK

- Haur Eskoia .. 943 74 21 41
- HHI (EPA) .. 943 74 08 80
- Herri Eskola . . . 943 74 08 79
- I.M.H. .... 943 74 41 32
- Herri Institutua
- Arreiture . 943 74 02 67
- Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80
- Ikastola ..... 943 74 44 41
- Pilar Ikastetxea....943 74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK

- BARREN ..... 943 74 41 12
- El Diario Vasco 943 74 40 73
- El Correo Español.. 943 74 10 82
- Egin ..... 943 10 84 21
- Zazpiki irratia .. 94374 34 74

# 10 ostirala

22:15 ZINEA  
"Matrix"

# 11 larunbata

12:00 ZAZPIKIREN  
BILERA  
Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA  
"Matrix"

# 12 igandea

19:30-22:15 ZINEA  
"Matrix"

# 1 asteleena

18:00 BUZTIN  
IKASTAROA  
HAURRENTZAT  
Aita Agirre Plazan  
Antolatzailea: Lurki tailerra

22:15 ZINEA  
"Matrix"

# 17 ostirala

19:00 MARGO  
ERAKUSKETA  
Egilea: Roberto Garcia  
Kultur Etxean  
Urriaren lera arte

22:15 ZINEA  
"Notting Hill"

## U21B1:1512

### FARMAZIAK

- |           |   |               |
|-----------|---|---------------|
|           | <b>Egunez</b>                               | <b>Gauetz</b> |
| <b>11</b> | Yudego*                                     | Escala        |
| <b>12</b> | Yudego*                                     | Escala        |
| <b>13</b> | Etxeberria Etxeberria<br>(Errosario kalean) |               |
| <b>14</b> | Escala                                      | Escala        |
| <b>15</b> | Bidasolo                                    | Bidasolo      |
| <b>16</b> | Etxeberria Etxeberria<br>(Santa Ana kalean) |               |
| <b>17</b> | Zabaleta Zabaleta<br>*(eguerdiko 2ak arte)  |               |

**ESCALA:** Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 943 75 16 38

**ANDUAGA:** Herriko  
enparaniza 4, Garagarza.  
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA:** Kalebarren, 9  
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

12 igandea Eizagirre

11111R ER • • • 111
• IRRIR
111 REIRIR

11  
NE  
A



Zuzendaria: Wachowski anaiak.  
Antzezleak: Keanu Reeves, Lauren-  
ce Fishburne, Carrie-Anne Moss.

## Matrix

Zientzia fikziozko pelikula honetako protagonista, Neok (Keanu Reeves) Matrix zer den jakitea nahi du. Izan ere, Neoren munduan bi errealtate daude. Bata, guztiek egunero bizi duten bizimodu normala, eta bestea, bizimodu normal horren atzean ezkutatzen den bizimodua. Lehenengoa amets bat modukoa da eta bigarrena Matrix delakoa. Neo, Matrix-ek berarengan eragin misterio-tsua eta gaiztoa duela-eta, egiaren bila hasten da arriskuz betetako bidean.



- **Helduen Hezkuntza Zentroko matrikula epea zabalik**

Helduen Hezkuntza Zentroak (EPA) matrikula epea zabalik dauka irail osoan. Ikasleek alfabetatzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituloa eskuratzeko aukera izango dute. Matrikula egitea nahi duenak, Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean duten lokaletik pasatu ahal izango da goizeko 10:00etatik 12:30era eta arratsaldeko 17:00etatik 19:30era bitartean. Informazio gehiago 943 74 08 80 zenbakira deituta lor daiteke. Matrikula eta kurtsoa dohainekoak dira.

- **Matrikula zabalik AEH euskaltegian**

Urtero bezala, baina oraingoan 'Euskara ahora' lemapean, Elgoibarko AEK euskaltegiak matrikula zabalik dauka euskara ikasi edo hobetu nahi dutenentzat, baita EGA eta irakaskuntzarako beharrezkoak diren perfiletarako ere. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, Udalaren laguntza izango dutelako. Argibide gehiago behar izanez gero, deitu 943 74 13 32 telefonora edo hurbildu Plaza Txikiko AEK euskaltegira hilaren 24a baino lehen.

- **Haurrentzako buztin ikastaroa**


Astelehenean, hilak 13, hasiko da *Lurki* Zeramika Taldeak antolatutako haurrentzako buztin ikastaroa. Buztina lantzea gogoko duten gaztetxoek urriaren 6ra arte jasoko dituzte klaseak. Ikastaroan parte hartu nahi dutenek *Lurki* Taldekoek Aita Agirre Plazan duten lokalean eman dezakete izena asstelehenetik ostegunera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

- **Antigimnasia ikastaroa urrian hasiko da**

Urteroko zitari hutsik egin gabe, antigimnasia ikastaroa uniko lehen astean hasiko da. Trakaslea Jose Antonio Zuazubizkar elgoibartarra izango da, eta Udalak Pedro Muguruzan dituen lokaletan izango dira klaseak. Antigimnasia, bizkarrezurreko arazoak zuzentzeko, artrosiak eragindako artikulazioetako minak kentzeko, giharreeta-tentsioak arintzeko eta arnasa hartzerakoan egon daitezkeen arazoak zuzentzeko egokia da, besteak beste. Teknika honen helburua, norbere gorputza ezagutu eta arnasketa ariketen bitartez, blokeatuta egon daitezkeen gorputzeko atalak desblokeatzea da. Ez dauka kontraindikaziorik eta adin guztietako jendeak egin ditzakeen ariketak dira. Interesa duen edozein penonak 943 74 17 15 zenbakira dei dezake egutegiari eta ordutegiari buruzko xehetasunak jasotzeko edo Tik-Tak dendara zuzendu.

# E.E.Y. »rplee&la akademía

Bernardo Ezenarro, 5-3. esk  
Tel: 943 74 30 44



- Maila guztiak
- Haurrentzako taldeak
- CAMBRIDGE YOUNG LEARNERS ENGLISH TESTS (STARTERS, MOVERS, FLYERS) azterketa egiteko aukera haurrentzat
- KET, PET, First Certificate, Advanced (CAMBRIDGE Azterketarako prestaketa)
- Talde homogeneoak
- Ikus-entzunezkoak
- Talde mugatuak

**MATRIKLILA EPEA ZABALIK GOIZEZ**

9:30etatik 11:30era  
telefonoz deituz gero

**ARRATSALDEZ**  
17:00etatik 19:00etara  
akademian

CAMBRIDGE Unibertsitateko



Lana

• ESKAINTZA •

- Familia alemanak pertsona bat hartuko luke irailetik aurrera aupa-ir pair bezala aritzeko. tr 943 74 19 65 (Ainhoa) .
- Emakumea behar da 2 ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. tr 943 74 38 83/ 943 89 03 42
- Neska behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. tr 943 74 12 24/ 943 74 16 60
- ◆ Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. s 943 74 35 86
- Elgoibarren lan egiteko txarkuteroa behar da. tr 943 74 28 48 (22:00etatik aurrera)

\*ESKAERA\*

- Erizain laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. ar 609 77 01 33 (Asis)
- Klinikak laguntzailea eskaintzen da gaixoak edo edadetuak zaintzeko. ir 943 74 04 86
- 32 urtetako neska eskaintzen da umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. tr 943 75 51 93
- Sukaldaria eskaintzen da sukaldarako, umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. tr 943 74 38 85. Gloria (goizetan deitu)

Bestelakoak

- Bi mutil hartuko nituzke etxean. Logela eta arropak garbitzeko eskubidea. tr 943 74 09 44
- Logelak alokatzen ditut Urasandiu. Sukaidea erabiltzeko eskubi-dearekin. it 943 74 03 93
- Betaurreko graduatuak galduta ditut Errosario kaletik Aubixarako bidean. Aurkitu dituenak deitu mesedez ts 943 74 17 15 era.
- Lorito bat galduta nuen abuztuaren hasieran Kalamua kalean. Buzia gorria du eta gorputza berdea. Hanka batean eraztuna dauka. Norbaitek aurkitu badu deitu telefono honetara: 943 74 21 86
- AIWA markako walkmana galduta dut Plaza Handian. tr 943 74 32 65
- Bezero onak dituen ileapaindegia traspasatzen da atentidua ezin delako. Aramaion. tr 945 44 50 35/945 44 52 94 (Miren)

Salerosketak

- Seat Ibiza (SS-AC) salgai. Motor ona. Itxuraz nahiko eskasa. Itxiera zentralizatua eta kristal-jasogailu elektrikoa. Merke. 1Y 617 92 72 96 ( 2:00etatik 22:00etara. Nekane)
- W.Polo GT salgai. SS-AK Egoera eta prezio onean. tr 943 74 43 10
- Okindegia hateko altzariak eta pisu digitala salgai. tr 943 75 51 99
- Renault Express salgai. BI-AP. 160,000 Km. Errebisim eginda era egoera onean. Prezio ona. tr 943 74 28 13
- Kanping denda altua saltzen da, 2-4 personarentzat. Hall-a eta toldoa dauka. Berria eta muntatzeko enaza. tr 943 74 27 41.
- Mackinley etxeko kanping denda saltzen dut. 4-5 personarentzat. tr 943 74 40 95 (Loli).
- Opel Corsa GSI salgai. tr 943 74 34 64 (Gauzez deitn. Mikel)
- Ford Escort autoa salgai. I 6V eta 90 zaldikoa. Airbag bikoitza eta ABS ditu. SS-AU. Interesatuak deitu 943 74 20 74 telefonora. (20:00etatik aurrera)

Etxebizitiak


- Pisua alokatzen da Deban. Irailaren erditik ekainera biumean. [Altzariekin.tr](http://Altzariekin.tr) 943 12 15 41/943 19 10 28 (Eba)
- Berritutako etxe handia salgai Urasandin. 4 logela. sukaldia, 2 komun, egongela-jangela eta kanpora ematen duen patio eguzkitua. Prezio ona. tr 943 74 14 54/943 73 40 31
- Pisua alokatzen da Urasandi auzoan. Berria eta Altzariekin. Bi logela eta egongela. tr 943 74 42 26 (Iluntzean deitu).
- ◆ Buhardila edo pisua alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat. 11. 943 74 05 99 (8:00etatik 13:00erara eta 17:00etatik 20:00etara)
- Etxebizitza salgai Errosario kalean. Ganbara eta altzariekin. Plazatik gertu. tr 943 74 17 95
- Pisua salgai edo alokairuan Torreviejan (Alicante). tr 943 74 24 26 (Domingo Garcia)
- Pisua alokatuko nuke altzariekin. Soldata finkoa. tr 943 74 08 09 (Ione)

Agurrak

• Zorionak Beñat Arriolari, uztailearen 27an 6 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki anaia Jokinen partez.




• Zorionak Arrate Perez, irailaren 7an 39 urte bete zituelako. Familiaren eta lagunen partez.



• Zorionak Vieente Ramirori, uztailearen 26an 10 urte bete zituelako. Gurasoen, arrebaren eta amaren partez.




• Zorionak Unai Diezi, hilaren 4an 4 urte bete zituelako. Gurasoen, amaren eta aitxizaren partez.



• Zorionak Iñeniari gaur 10 urte bete dituelako. Bere lagunen partez, segi horrela.




• Zorionak Gorane Ayestari, abuztuaren 28an 4 urte bete zituelako. Gurasoen eta familiaren partez segi beti bezain sorgintxo. Muxu handi bat!



• Zorionak Ainhoa Bergarari, hilaren 6an 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta amaren partez.



• Zorionak Garazi, zure lagunaren urtebetetzean. Ondo pasa eta tartzan haundi bat aitxizta Sabinen, amama Garbifieren eta familiaren partez.



• Gu baino hobeto bizi dena... izango da. Zorionak eta ondo pasau. Mendian ibiltzen garen emakume taldea.




• Zorionak Ikerri, Aitorri eta Anderri. 5 urte bete zituztelako. Familiaren partez.

• Zorionak Ainhoa Mugerzari, hilaren 3an 2 urte bete zituelako. Gurasoen eta amaren partez.



• Zorionak Leire Oteizari, hilaren 5ean 8 urte bete zituelako. Muxu handi bat gurasoen, amaren, osaba Joseren eta, bereziki, Aitorren partez.



• Zorionak Asier Jimenez, abuztuaren 27an 7 urte bete zituelako. Gurasoen eta anai-arreba Ekainen eta Andrearen partez




• Zorionak Ireneri abuztuaren 16an urtebete egin zuelako eta baita ere Mariari, gaur hilak 10, 3 urte bete dituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Naroa Almenarari eta Roslri, hilaren 9an urteak bete zituztelako. Familiaren partez.



• Zorionak Mikeli, gaur, ostirala, 8 urte bete dituelako. Etxekoekin partez.



• Zorionak Nereari, hilaren 4an 5 urte bete zituelako. Ionen eta familiaren partez.





# KENSINGTON

ZERBITZU LINGUISTIKOAK, S.L.

## 1999-2000 MATRIKULA ZABALIK IKASTURTE HASIERA IRAILAREN 13AN

**KENSINGTONEK HONAKO ZERBITZUAK ESKAINTZEN DIZKIZU:**

*Plaza  
mugatuak*

- MAitA qUZIETAk0 iNgEtESEk0, fRANTSESEk0  
ETA AIEMANEk0 KIASEAK
- LibURUTEgiA / BidEOTEkA
- TUTORETZA pERTSONAtIZATUA
- MATERIAL didAKTikoAREN SAtMENTA ZUZENA
- 4 URTEtik gORAKOENTZAK0 LASE bEREZiAk
- ENpRESEN
- SUBENTZionATUTAk0 kURTSOAK

## CAMbRidgEko AZTERkETAk

1999ko El<AINEk0 dEIA[dIAN % 8 5Ak , du.

*Zorionak e940144  
ahaleginarengatik !*



GIPUZKOAKO HIZKUNIZA  
IRAKASLE ELKARTEKO  
BAZKIDE

P. MUGURUZA, 8 - 20870 ELGOIBAR  
TEL/Fw: 943 74 02 36  
TEL: 943 74 35 12  
E-MAIL: [kensington@redestb.es](mailto:kensington@redestb.es)

EGUZKI AUZOA, 5  
20577 ANTZUOLA  
TEL: 943 78 70 30





# Idi

## JAICIBERRIAK GARA

### ETA AURRETIK GCIAZ

### BIGARREN ESKUKO AUTOAK SALTZEN DITUGU



*r t f m*

*upo*

# lk

# Nortelfor

#### BILBOCASION

Jaen, 11  
Tel.: 94 410 16 61  
BILBO

#### AUCASA

P. Larramendi, 10  
Tel.: 94 410 39 39  
BILBO

#### ALDIAK

Mallabiena auzoa, 4  
Tel.: 94 681 67 66  
IURRETA

#### ALDIBI

Zigarrola, 1  
Tel.: 943 71 20 02  
ARRASATE

#### ALDIBI

Olaso pol., 23  
Tel.: 943 74 20 37  
ELGOIBAR

#### ALDIKAR ALMOVIL

Colon pas., 27  
Tel.: 943 27 09 99  
DONOS7A

#### ALDIKAR ALMOVIL

Oria etorbidea, 6  
Tel.: 943 27 09 9  
LASARTE